



Eman hegoak euskarari



Itzulpen mirengarri bi (edo hiru)

Hiru itzulpen nagusi ageri izan dira euskaraz. 'Moby Dick' nobela erraldoiarekin batera, nagusia den 'Spoon River antologia' ezagutu dugu gure hizkuntzan eta hori gutxi balitz, John Donne idazle klasikoa ere eman digute dastagai

JON KORTAZAR



Balea Zuria argitaletxeak 'Moby Dick' nobela erraldoiaren euskal itzulpena eman du plazara. Berri ona, zalantzarik gabe. Ez da izango bada ona berria! 'Moby Dick' bezalako lana euskaraz! Nork esan behar zuen horrelakorik!!! Durangoko Azokako Euskadi Sari-dunen mahai-inguruan ere Patxi Zubizarreta idazle ezagunak Azokako berri nagusitzat eman zuen. Ez dut nik ukatuko argitalpen horren balio sinbolikoa, inondik inora ere, urrun da asmo hori nigandik.

Baina egia esateko jakin nahi nituzke zeintzuk izan diren barretik editoreek egin dituzten joan etorriak. Jakin nahi nuke zerk era-

man zuen Juan Gartzia itzultzailea hain lan erraldoia egitera. Seguruenik bera joan zitzaie argitaletxekoei proposamenarekin. Jakin nahi nuke zein mirakuluekin egin zuen posible Hondarribiko Udalak baiezkoa ematea argitalpenerako laguntzari. Agian horrek guztiak gutxi inporta du (batzuk) esku artean dugun emaitza ikusiz gero. Gu bagara nor, gero!

Poz-pozik egon behar dugula esaten dit nire senak. Baina Herman Melvilleren nobela irakurtzeko astia lortzen dudan artean, argitaletxe horrek plazer emandako beste liburu bitan jarri nahi dut gaur arreta.

Spoon River

Edgar Lee Masters (1868-1950)

poetaren 'Spoon River antologia' eman zuen argitaletxeak plazara orain dela hilabete batzuk eta airtortuko dut Alain Lopez de la Calleren itzulpenaren poemak irakurtzerakoan hunkitu egin nautela. Jakina da poetak liburua eman arte egin zuen historia. Liburua 'Reedy's Mirror' aldizkarian eman zuen ezagutzera eta bat-batean arrakasta izan eta 4 urtetan 80.000 ale saldu omen zituen. Jakina da poema liburua- ren gai nagusia hilerri batean ehortzita diren lagunen, gizon eta emakumeen, historia dumea labur-labur kontatzen duen elea dela: «Denak lo daude, denak muinoan lo eta lo, muinoan lo».

Edgar Lee Mastersek mundu

bat eratu zuen fikziozko herri horretan noizbait biztanle izandakoen berri ematerakoan. Ahotsak dira desberdinak, historiak ere ez dute antzik. Poemak zuzenak dira, batzuk gardenak, besteak aipamen kultuz eta jakintza literarioz beteak. Liburu guztia, baina, kosmos baten agerpena da, mikrokosmos txiki baten aipamen handia. Hitzaren eta irudimenaren joko amaigabea. Joko intelektuaren gozamen, agerpen sotilen entziklopedia osatua, hitza sorgindua eta iradokizunaren magia edozein bertsotan.

John Donne xuxurlatzen

Gogoan dut Joseba Sarrionandiak John Donneren lau testu itzuli zituela eta bere 'Hezurrezko txirulak' liburuan eman. Gogoan dut John Donne asko aipatu dela garai hauetan liburu baten izenburutzat bere esaldi bat erabili duen

«Gogoan dut Joseba Sarrionandiak John Donneren lau testu itzuli zituela»

Nuccio Ordineren (1958-2023) 'Los hombres no son islas' lana dela eta. Baina bestelakoa da Patxi Ezkiagaren eskutik (1943-2018) heldu zaigun 'Meditazioak' euskaratze hau.

Euskara xalo eta argi batean eman ditu Patxi Ezkiaga poetak John Donneren prosa barrokoa, hausnarketa sotila, harat-honat dabilen, baina era berean zuzena den esaldi mugikorra, honako honetan bezala: «Oi gizonaren izaera maltzurra, oi, gizonaren mugimendu irregularra, altxatzea bera hondamendirako bidea baita!».

Axular etorri zait burura John Donneren 'Meditazioak' irakurtzerakoan, esaldiaren joan-etorrien izadiko itsas marean. Gaixotasunaren beldur, Jainkoarekiko sinestun, pentsakizunari bide emanez esaldi dotoretan. Irakurtzeko beti erraz eta sotil.

Gabriel Insaustiren hitzurrearekin, XXIII meditazioen itzulpenarekin eta Izaak Waltonek 1640an idatzi eta Felipe Juaristik euskaratu duen 'John Donneren bizitza' biografiarekin, ekimen sendoa eman du argitara Balea Zuriak.

Zalantzatik ikasi

JON MARTIN-ETXEBESTE

Zer gauza izan liteke, igarle argia, osoa izanda izatea erdia? Galdera bakoitzak behar omen du bere erantzuna eta erantzun bakoitzak bere galdera, eta liburu honek galtzerdiaren bi erdiak bildu eta pilota bat osatzea proposatzen du. Jorge Rico Ródenas idazleak sortutako Tomas txantxazalea eta Isabel Martinsen A, aitarena album ilustratuak euskarara itzuli berritan kalera-tu du asmakizun bilduma hau Xabier Olasok; beraz, haur literaturan oparo dabil arabarra. Liburu borobila da egitura aldetik 365 igarkizun sortu ditu idazleak; bakoitzak urteko egun baten izena darama. Eguneko asmakizun bana dosifikatzeko gai denarentzat, altxorra. Higinia Garayrenak dira orrialde bakoitzeko margozko pistak eta despisteak. Errimatuak eta erritmodunak dira asmakizun

gehienak; batzuk errazak dira eta zailagoak besteak; distiratsuk ale batzuk eta pilakoak bestezuk. Zenbaitetan irakurtzen ikasten ari diren haurrentzat bideratutako letra jolasak edo jolas memoteknikoak proposatzen dira: «Hiru kokorikon, hiru kukurrukun, bi korroskada eta mokordoan bat». Haurrek duten munduaren ezagutzan oinarritzen dira erantzunak, eta haien intereseko gaiak dira gehienak. Hizkuntzen ezagutzak ere lagun diezaieke enigma disolbatzen: «Musika nota naiz, musika nota, eta pentagraman bizi naiz eguzkiak jota».

Aipagarria amaieran erantzunak zerrendatzeko modua: bai egunen hurrenkeran, eta baita alfabetiko-ki ere. Bi haur taldek asmakizunen bidez egin ditzateten bi joko ere proposatzen ditu liburuaren amaieran: sokatira eta sagua jan behar duen katuarena. Liburuak Haur Hezkuntzako irakasleentzat izan dezakeen potentziala kontuan izan du argitalpenak beraz. Ahozkotasuna lantzeko dauden baliabide mugatuen putzuan, tanta bat gehiago. «Itsoan jaio, eta entsaladan adio», galderaikurrak liburu honi gaitza damaio.



MIHI PUNTAREN PUNTAN
Xabier Olaso
Elkar, 144 orr.
15,25 euro.

Etxeko lanak

ARANTXA URRETABIZKAIA



Gure ama zenak jubilatuta ondoren ikasi zuen sukaldean egiten. Bueno, jakin jakingo zuen, baina ez zen bere ardura jaten genuena prestatzea. Berak erosketak egiten zituen eta, urtetan, igandetako afaria. Gainerako guztia etxeko izebak egiten zuen.

Gauza da jubilatuta ondoren hasi zela sekula egin gabekoak egiten. Bilatzen zituen errezeta errazak egunkarian edo aldizkari batzuetan eta gazte baten ilusioz galdetzen zuen goxoa atera ote zitzaion egindako hura. Orduan deskubritu zuen sukaldean egitea ez dela zaila. Edonoren eskura dagoela, aski direla lau pauso dozenaka jaki desberdin antolatzeko. Jarri tipula erregosten eta ...

Nahi gabe, horretan ere etorkizunean arrunta izango zena egin zuen gure amak.

Senideok modu naturalean ikasi genuen, egiten zutena ikusten, prestaketetan laguntzen. Orain, dirudienez, etxeko sukaldean ikasi ez dutena hedabideetan ikasten dute gaurko gazteek. Eta, nonbait, ezjakintasunak berdindu ditu gizon eta emakume, ez jakintasunak.

Eta norabide horretan goaz. Telebistan ikusten duguna egia bada, aspaldian abiatu ziren bide horretan hainbeste kontutan aitzindari diren Estatu Batuetan. Gosariak, bazkariak, afariak, tarteko otorduak, guztiak erosten dira eginak. Eta etxean zerbait egiten dutenean, gehienetan ogitartekoak dira.

Horrekin batera, telebistan ikusten ditugun etxeetan ez du inork josten, ez du inork arropa lisatzen, pasaratu hitza ere ez dute ezagutzen. Eginkizun horiek guztiak etxetik kanpo egiten dira, ordaindu egiten dute galtza batzuen azpildura berregiteko edo, gehienez jota, interneten bilatzen dute nola egin etxean edo eskolan ikasi ez dutena.

Agian iruditzen zaigu etxeko lanen erabateko kanporatze hori gugandik urruti dagoela, ez zaigula guri gertatuko, baina esperientziak erakusten digu hori pentsatzen genuen askotan oker geundela.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Maitasun kapitala
Karmele Jaio. Elkar.

2 Miñan
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

3 Mundu zitalaren kontra
Lizar Begoña. Elkar.

4 33 ezkil
Miren Gorrotxategi. Elkar.

EZ FIKZIOA

1 Ura saltoka
Juan Kruz Igerabide. Alberdania.

2 Biziakoak. Herri kultura.
Xamar. Pamiela.

3 Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz. Perry Anderson. Katakarak.

4 Euskal Herriko pegatak.
I. Nicolas/P. Salgado/J. Ubierna/E. Memoria